

Etxalarko bestak

2024

Abuztuaren 14tik 18ra



Etxalarko bestak 2024



*Etxalarko Udalak
herritar eta bisitari guztiei
besta onak opa dizkizue*



www.etxalar.eus



**ZUK ERABAKI
KONTSUMITU EDO EZ.**

**BETI ERE
ARDURAZ JOKATU!**

**TÚ DECIDES:
CONSUMIR O NO CONSUMIR.
¡ACTÚA SIEMPRE
CON RESPONSABILIDAD!**

Antolatzailea
Organiza:



Laguntzaileak
Subvenciona:



Etxalar eta Arantza

Abuztuaren 14an
(asteazkena)

5€

joan-etorria

IRTEERAKO ORDUA | Horario de salida

BERA Agerra / Toki Ona	LESAKA Suhiltzaileen aparkalekua	ETXALAR Landaburuan	IGANTZI Bi-Bide	ARANTZA Aparkalekuan
20:45	21:00	21:15	21:30	21:45
23:15	23:30	23:45	00:00	00:15
-	-	02:30	02:45	03:00
-	-	06:00	06:15	06:30

ITZULERAKO ORDUA | Horario de regreso

ARANTZA Aparkalekua	IGANTZI Bi-Bide	ETXALAR Landaburuan	LESAKA Suhiltzaileen aparkalekua	BERA Agerra / Toki Ona
21:45	22:00	22:15	22:30	22:45
00:15	00:30	00:45	01:00	01:15
03:00	03:15	03:30	03:45	04:00
06:30	06:45	07:00	07:15	07:30

Alkatearen agurra

Zer lirateke Etxalarko bestak erraldoi eta buruhandirik gabe! Herriko ttikienen ilusio aurpegiak ikustea bertzerik ez dago Perikok, Juanitak eta oraindik izenik ez duten bertze bi erraldoiek eta buruhaundiek sortzen dituzten emozioak zenbatekoak diren konturatzeko!

Hau dela eta, aurten, besten hasierako txupinazoa erraldoi eta buruhaundiak zaharberritzen aritu diren boluntario taldeak emanen du. Lan handia egin dute eta herri osoaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu: Maria Puy Urtasun, Juanita Etxeberria, Mariasun Sanzberro, Mariasun Vertiz, Maria Jose Indaburu, Maite Olaetxea, Marta Villamayor, Benantxio Elizagoien eta arropa berriak egiten Agurne Leiza. Eskerrik asko egin duzuen lanagatik eta bejondeizuela!

Talde honen lana, etxalartarron islada da; auzolana, ilusioa eta lanerako gogoia giro ezinhobean. Etxalartarrak herriaren alde. Hainbat eta hainbat etxalartarren nortasuna da eta horri eutsi egin behar diogu, denen arteko besta herrikoiak ospatzeko eta herria aitzinera

joateko. Ez gara aspertuko eskerrak emateaz... Herri Lasterketako taldea, Herri Afariko taldea, Asauko antolatzaile taldea, Herriko Trikitilariak, Txistulariak, Pilotariak, Guraso Elkarte, Eskaladako taldea, Erraldoi eramaile taldea, Andre Mari Dantza taldea, Altxata, Etxalarko gazteak... eta modu batean edo bertzean, partehartzen duzueni, egiatan, **ESKERRIK ASKO** zuek gabe, ez genuke horrelako bestarik izanen.

Bertzalde, bertze behin, herrian txikiziorik ez izatea eta denen artean errespetuzko besta batzuk ospatzea espero dugu. Leku publikoetan, petardo haundien debekuarekin segituko dugu plazako ekintzetan soinuek ez molestatzeko, jendea lasai ibiltzeko herriko xoko guztietan eta, batez ere deus ez hautsi edo hondatzeko. ,

Akautzeko, animatu nahi zaituztegu bestetan partehartzera eta gozatzera, betiere errespetua, tolerantzia, euskara eta berdintasuna bistatik galdu gabe.

Gora Etxalar eta gora Etxalarko bestak!

Xabier Etxarte Mikelestorena

Alkatea

Etxalarko bestak 2024



- 40 logela erabat osatuak (komuna eta TBrekin)
- Ostatura: Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak | Jangela pribatua
- 300 lagunendako bankete-jangela | 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko,... mota guztietako ekitaldiak



N-121-A • ETXALAR • T. 948 635 000
www.etxalar.com | info@etxalar.com



Etxeko sukaldaritzaz gozatu nahi baduzu, etorri eta dastatu!

Si quieres disfrutar de cocina casera, ¡ven y pruébalo!

Si vous avez envie de déguster notre cuisine, venez l'essayer!



Hamarretakoak, bazkariak, afariak, menua eta karta

Almuerzos, comidas, cenas, menú y carta

Apéritifs, déjeuners, diners, menus et carte

T. 948 39 79 59 - Andutzeta, 15 - ETXALAR

Aurrekontua

ABUZTUAK 14		Asteazkena	
Lasterketa herrikoa	17:00	150,00 €	
Agerraldi isila	19:45		
Altzaferuak	20:00	200,00 €	
Xanpaina eta goxokiak	20:00	300,00 €	
Kankailuak	20:00	800,00 €	
Elutxa txaranga	20:00 - 00:00	2.500,00 €	
Txistulariak/trikitilariak	20:00		Herriko txistulari eta trikitilarien eskutik
Herri Afaria	21:30		Etxalarko Gazteen eskutik
Txarangakoen afariak Herri afarian	21:30	250,00 €	
Itzal Erromeria	00:30 - 03:30	2.420,00 €	
ABUZTUAK 15		Ortzeguna	
Gaiteroak	10:30	500,00 €	
Dantza emanaldia	12:30		Andra Mari Dantza Taldearen eskutik
Musika Dantzariendako	12:30		
Dantzarien Luntx-a	13:30	250,00 €	
Herri Kirolak (proba ezberdinak)	18:30	1.375,00 €	
Dantzari eta txistularien afaria	21:00	800,00 €	
Su artifizialak	23:00	700,00 €	
Fan&Go Taldea	20:00 - 22:00 eta 00:00 - 03:00	2.300,00 €	
ABUZTUAK 16		Ortziralea	
Diana	10:00		Herriko trikitilarien eskutik
Haurrendako jokuak	11:00 - 13:00 eta 15:00 - 17:00	1.650,00 €	
Asau Tiki	13:30		Guraso Elkartearen eskutik
Eskalada	16:30 - 18:30		Miren, Paxku eta laguntzaileen eskutik
Herri Kirol Desafioa	18:00 - 19:00	1.000,00 €	Etxalarko Gazteen eskutik
Jaiari Jai Taldea	19:30 - 21:30	1.469,70 €	
DJ Track- A	00:00 - 04:00	1.400,00 €	
ABUZTUAK 17		Larunbata	
Diana	10:30		Herriko txistularien eskutik
Herriko umeen XXXVII. pilota txapelketa	11:00		
Gazteen XIII. Binakako esku pilota txapelketa	12:00		
Pilotari finalisten bazkaria		150,00 €	
Pilotako sari banaketak	13:00		Babesleen eskutik
XXX. Mus txapelketa	17:00		
Trikitilarien emanaldia	18:30		Herriko trikitilarien eskutik
Trikitilarien merienda		200,00 €	
Saltoka	19:30 - 21:00	1.200,00 €	
Laket Taldea	00:00 - 03:00	2.541,00 €	
ABUZTUAK 18		Igandea	
Diana Elutxa Txarangarekin	10:30		
Hodei Magoa	12:30		
Bertsolariak + Gai jartzailea	14:00	1.000,00 €	Larraburua Elkartearen eskutik
Asaua	14:00		Etxalarko Gazteen eskutik
Txarangakoen bazkariak Asauan		300,00 €	
Jolas dinamikoak, sortzaileak eta pantaila gabekoak	16:30 - 18:30	550,00 €	
Trikidantz Taldea	20:00 - 22:00	2.650,00 €	
Jalisko DJ	23:30 - 03:30	800,00 €	
KIOSKOAREN MUNTAIA ETA ALOKAIRUA		5.900,00 €	
SGAE		1.000,00 €	
Prezioak BEZa barne		34.355,70 €	

Aldizkari honetan agertzen diren argazkien egileak: **Iruñe Elizagoien, Unax Etxarte** eta

Joseba Olagarai

Argitaratzailea: Etxalarko Udala · Lege Gordailua: NA 1248-2015

Ettxalarko bestak 2024

IÑIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrarekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak



Goikolanda 8A
ETXALAR
T. 657 791 507
948 635 256

ongi pasa
bestak!

www.pelletsbaztanbidaso.com | etxarte1971@gmail.com



MA

ILEAPAINDEGIA

JAUREGIETA 13, ETXALAR

Tfnoa: 948 635 237

www.facebook.com/Maiderileapaindegia

50
URTE

USOA kooperatiba

Ongi pasa
bestak!



948 63 52 14

605 63 12 44

Abuztuak 14, asteazkena



17:00 VIII. Lasterketa herrikoia.

Haur eta helduentzat lasterketa ez lehiakorra. 12 urtetik beherako haurren izen ematea.

17:30 Haurren lasterketa.

Helduen izen ematea

18:00 Helduen lasterketa.

Ondotik merienda

Oharra Gertatzen ahal den edozein ezbehar ez da antolatzaileen ardurapean geldituko.

19:45 Agerraldi isila 'Euskal Presoak Euskal Herrirat'.

20:00 Altxaferua, txistulariak, trikitilariak, ELUTXA txaranga, buruhandiak eta kankailuak. Xanpaina eta goxokiak banatuko dira.

21:30 Herri afaria frontoian. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 10ean bukatuko da. **Txartelak 30€** balioko du. Epez kanpo erosten duenak 5€ gehiago ordaindu beharko ditu. Txartelak **Elutsan eta Herriko ostatuan** daude salgai. Herri afarian eta ondotik ere txarangak animatuko du giroa.

00:30-03:30 Dantzaldia **ITZAL ERROMERIA** taldearekin.



ETXALARKO EKITATIBA eta
HARITZPE OKINDEGIAren partetik

**BESTA ONAK PASA!
GORA AMA BIRJINA!**

ETXALARKO EKITATIBA

T. 948 635 026 · 618 778 328



**HERRIKO
OKINDEGIA**

Euskal Herriko gari
mota zaharrak gure
errotan ehotuak

- ✦ Espelta Handia
- ✦ Espelta Ttikia
- ✦ Florencio Aurora
- ✦ ARAGON 08
- ✦ Lakaingo bizarduna

06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
Tif. 627 03 39 75

Abuztuak 15, ortzeguna Andre Mari eguna



10:30 Diana gaiteroekin, buruhandi eta kankailuekin.

12:00 Meza nagusia txistulariekin eta ondotik Javier Perez de Azpeitiaren organo kontzertua.

12:30 Herriko dantzarien saioa txistulari eta musikariekin. Ondotik eskola zaharreko estalpean hamaiketakoa dantzari eta musikarientzat.

18:30 Herri Kirolak. Proba konbinatuak.
Aizkolariak:
Oier eta Xuban Kañamares
Arpanlariak:
Iruñe Biurrun eta Daniel Saldias
/ Sela Goñi eta Jesus Goñi
Harri-jasotzailea
Ane Cestau

**20:00-22:00 eta
00:00-03:00 FAN & GO** taldearen emanaldia.

23:00 Su artifizialak.





Etxalar Escape Room
Abentura, dibertsioa eta kultura



IRAGAN HURBILA PASADO CERCAÑO

Bestetan ere kulturaz disfrutatu, dibertitu eta
abentura ederrak bizitu! Ongi pasa!

www.etxalarescaperoom.com

Inarreta, 4

+34 634 779 978

**ONGI PASA
BESTAK!**

ELUTSÄ

© S T Ä T U Ä



**EGUNEKO ETA
ASTEBURUKO
MENUAK**

PINTXOAK

BOKATAK

RÄZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR • T. 948 635 191

Abuztuak 16, ortziralea Haur eta gazteen eguna



10:30 Diana herriko trikitilarien eskutik, buruhandi eta kankailuekin.

11:00-13:00 eta

15:00-17:00 Haurrendako Joku Parkea.

13:30 Asauttiki. Txartelak 12€ balioko du. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 10ean bukatuko da. Epez kanpo erosten duenak 3€ gehiago ordaindu beharko ditu. Bertze urteetan bezala, berendua prezioan sartu dago. Landagain Guraso Elkarteak antolatua.

Oharra: Bazkaltzerakoan edo ondotik gertatzen ahal den edozein ezbehar ez da Guraso elkartearen ardurapean geldituko.

16:30-18:30 Eskalada Frontoi gibelean haur eta helduentzat.

17:00 Apar besta plazako aparkalekuan.

18:00 Herriko Gazteen arteko **Herri Kirol** desafioa.

19:30-21:30 JAIAN JAI taldea.

00:00-04:00 DJ TRACK-A.



ASADOR

LA BASQUE

Bakailu tortillak eta txuletak

Tfnoa: 948 635 153 • ETXALAR



Maira

Ogigintra ekologikoa

Egurrezko labean egindako ogiak

Pan ecológico hecho
en horno de leña

Etxalar



T. 620 053 512 / 948 635 014
mairaerrandonea@gmail.com



IRIBARREN

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-etxeentzako leihoak!

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu !!

www.ventanasiribarren.com

Antsolokueta, 28 ETXALAR | T./F. 948 635 071 | info@ventanasiribarren.com

Abuztuak 17, larunbata



10:30 Diana herriko txistularien eskutik, buruhandi eta kankailuekin.

11:00 Herriko umeen XXXVII. pilota txapelketa Finalak. Aurre-Benjaminak/Benjaminak, Benjaminak/Alebinak, Infantilak.

12:00 Aitor Danboriena Memoriala XIII. pilota txapelketako finala.

13:00 Pilotako sari banaketa.

17:00 XXX. Mus txapelketa. Bi kategoria izanen dira; haundiena eta 16 urtetik beheitikoena. Apuntatzeko 16:30etik aitzinera.

18:30 Herriko trikitilarien saioa. Ondotik trikitilarienzat merienda eskola zaharretan.

19:30-21:00 SALTOKA Euskal Musika eta dantza tradizionala.

20:00 Museko sari banaketa.

00:00-03:00 LAKET taldea.



Etxalarko bestak 2024



Kanttala

NATUROPATIA

Iraitz Arruabarrena



Teknika txinatar tradizionala

- Reflexologia
- Kiromasala
- Indiba
- Bach loreak
- Aurpegiko tratamenduak

Jauregieta 29, behea • 31760 Etxalar • Tel. 690 831 952

landa arrautzak

Ongi pasa Bestak!



LARRAZ

T: 609 433 587
W: www.huevoslarraz.org

NAFARROA



Abuztuak 18, igandea Asau eta Jubilatuen eguna



10:30 Diana ELUTXA txarangaren eskutik, buruhandi eta kankailuekin

12:30 Hodei magoa.

14:00 Bertso bazkaria Larraburuan. Denentzat irekia. Sebastian Lizaso eta Onintza Enbeitia bertsolariak eta Joseba Olagarai gai jartzailea. Txartelak hartzeko, Larraburua elkarteko juntakideen bidez. Bazkideak 30€ eta bazkide ez direnak 35€



14:00 Asaua ermitako zelaian. Plaza ingurutik ELUTXA txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelaira. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 14an akautuko da. **Txartelak 30€**, epez kanpo 5€ gehiago. Buelta landatan barna izanen da.



16:30-18:30 Joko dinamikoak, sortzaileak eta pantailarik gabekoak haurrentzat. **TXIRIBUELTA**ren eskutik

19:00-23:00 Puntu Morea Herriko plazan. Eraso matxisten aurrean arreta emateko zerbitzua.

20:00-22:00 TRIKIDANTZ taldea.

23:30-03:30 DJ J&J



**EZ NAZAZU DEITU
PLASTIKOEN EDUKIONTZIA.
ONTZIEN EDUKIONTZIA NAIZ!**

**NO ME LLAMES EL
CONTENEDOR DE PLÁSTICO.
¡SOY EL CONTENEDOR DE ENVASES!**

EDUKIONTZI HORIAN EN EL CONTENEDOR AMARILLO

**PLASTIKOZKO, METALEZKO ETA
TXAPAZKO ESTALKIAK ETA TAPOIAK**
TAPAS Y TAPONES DE PLÁSTICO, METAL Y CHAPAS

FILM-PAPERA ETA ALUMINIO-PAPERA
PAPEL FILM Y PAPEL ALUMINIO

TARRINA ETA JOGURT-ESTALKIAK
TARRINAS Y TAPAS DE YOGURT

ALUMINIOZKO ETA POLIEXPANEZKO ERRETILUAK
BANDEJAS DE ALUMINIO Y POLIEXPAN

PLASTIKOZKO ONTZIAK ETA POLTSAK
ENVASES Y BOLSAS DE PLÁSTICO

ONTZI METALIKOAK
ENVASES METÁLICOS


BRIKAK
BRICKS

AEROSOLAK
AEROSOL



Zalantzak badituzu, bilatu ikur hau zure ontzian.
Si tienes dudas, busca este logotipo en tu envase.





ONGI PASA BESTAK!

ARRINE - LANAK

697 285 445

ALTXATA
Kultur elkartea




Ongi pasa bestak!

www.altxata.org - altxata@gmail.com
Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR

QASNATEORIA | QUESERIA

KORTARIKO BORDA

ONGI PASA BESTAK !!!!

948580427 - 638357517
ORABIDEA AUZOA KM 18-19AN




KORTARIKO BORDA

construcciones
LASAGA-TELLETXEA, S.L.

Ongi pasa bestak!

• **HARGIN LANAK**
• **HARRI LANAK**

T. 948 63 51 28 | M. 670 410 581 - Errotagaraia · ETXALAR · conslasaga@gmail.com



BAGOLEKO BORDA FERMIN ALTZUGUREN

2 ETXEBIZITZA
BAT 6 LAGUNENDAKO
ETA BERTZEA 4 LAGUNENDAKO

TEL. 688 601 830

www.bagolekoborda.com

bagoleko@gmail.com



ameli@etxalar.eus

VENTA LIZAIETA



OSTATUA | PINTXOAK
OGITARTEKOAK | PLANTXA

Ongi pasa bestak!



Erreserba taldeak :
+33 (0) 642 522 280

Lizarrietako lepoa - SARA-ETXALAR

Zer oroitzapen gorde nahi dituzu?

Herriko bestak Etxalarko Udalak sustatu ditu eta hainbat talderen laguntzarekin antolatu dira. Prestaketak aitzinetik egin dira. Zurekin, zuretzat. Guretzat.

Bestak hasi baino lehen, gizarte zerbitzutik egun horietarako nahi duzun substantzien kontsumo-ereduari edo kontsumorik ezari buruzko hausnarketa egitera gonbidatu nahi zaitugu.

Onera da norberak bere gogoeta egitea, bakarka edo taldean, eta norbere erabakiak hartzea; bestez nola gozatu pentsatu ez baduzu, hemen ideia batzuk eskaintzen dizkizugu...

Adingabea bazara, kontsumoa debekatzen duten legeez gain, hazten ari zaizkizun zure gorputza eta adimena dira zure altxorrik handienak. Zaindu itzazu. Taldearen presioa sumatzen baduzu, inpulsiotasunez edo arriskuen pertzepzio gutxirekin sentitzen bazara; gelditu, pentsatu, erabaki eta erran! Errespetatu zaitzatela eta errespetatu ezazu!

Adinez nagusia bazara, zentzuak eta bizi-esperientziek erabaki babesleenak hartzeko irizpideak eman izanen dizkizute. Gogoratu segitu beharreko eredua zarela. Bestetan, kontsumitu gabe ere goza daiteke. Baina kontsumitzea erabakitzen baduzu, egin ezazu arduraz, zer, zenbat, nola, noiz eta norekin egin aurreikusiz. Aurretiazko ilusioa gerora nahigabe bihur ez dadin.

Gozatu bestez zure pertsonarekiko, bertzeekiko eta inguruarekiko arduraz eta errespetuz, zure oroimenean aurtengo oroitzapen hauek grabatuta gera daitezten.



PUNTU MOREA

ABUZTUAREN 18an
19:00-23:00

HERRIKO PLAZAN



722 467 197

INFORMAZIO GUNEA

Herritar oro indarkeria matxistaz kontzientziatzeko besta eremuan kokatutako karpa morea izanen da. Hiru helburu nagusi ditu. Batetik, **emakume***, **neska* gazte** zein **LGTBI+fobia** pairatu dezaketen pertsonen askotariko erasoen gaineko bizipenak eta iritziak jasoko dira. Bertzetik, eraso horien gaineko informazioa zein horiei **aurre egiteko tresnak** eskainiko dira. Azkenik, eraso matxistak ez gertatzeko gizon eta mutilak ohartarazteko gunea ere izanen da, **prebentziorako** eta, **erasorik gertatuko balitz, erantzuna bideratu** ahal izateko.

Indarkeria
matxistaren
aurkako baliabide
eta zerbitzuak



Bortzirietako
Berdintasun Zerbitzua



emagin

AZKUA BIZIRIK!

Herri **BIZIA** gara, natura eta kultura balioetan aberatsa, **INGURU**ri esker

ENERGIA sortzearen **ALDEKOAK** gara, betiere ingurua errespetatuz.

HERRI-LURRA (komunala) **ZAINDU** dute gure antzinezkoek; hala egitea dagokigu.



ADI! Bortzirietako eta Malerreka mendiak arriskuan!!



Etxalar, Igantzi, Arantza, Sunbilla eta Donezteben "Azkua" parke eolikoa paratu nahi dute, gure lurra xehetu eta energia kanpora eramateko.

Egin bat gurekin eta sinatu proiektu honen kontra: Herriko Okindegian, Kultur Etxean edo internet bidez, labur.eus/azkua helbidean.

Eolikaok jartzeko intentzioa jakinda (Zelena Renovables, Madrid) bildutako herritarak gara. **Jokoan dagoenaz jakinarazi** eta **GURE INGURUA BIZIRIK** zaintzearen alde ahalik eta herritar gehienak **BAT** egitea bilatzen dugu.

Lurraldea eolikoz okupatuta ere argindarra Iguailguail ordaintzen da; merketzako modua herritarren esku izatea litzateke, Energia Komunitatea eratuz.

Zelena "pantaila" enpresaren gibelean Brookfield Asset Management multinazionala dago (Kanada); diru interesa dute, ez energia sortzea.

Dirua mugitzen dute, bai, baina, **dena saltzen ahal dugu?**



Azkua bizirik




GANIX

Tailerra

FIAT zerbitzua

948 63 06 69



Zalain Pol. 11 BERA | Euromaster zegoen lekuan

JAIONE - GOZOTEGIA



Besta gozo eta
zoriontsuak opa
dizkizuegu

Altzate, 19 • BERA • T. 948 630 786

DISFRUTATU BESTAKI!



HERNANI



www.etiquetavoltereta.com



www.viguisa.es



@viguisaonline



ViguisaOnline

Busti mingaina herriko bestetan

Etxekoekin otordua; lagunarteko poteoa; aspaldi ikusi gabeko ezagunarekin dantza meneoa; herri kirol saioa ikustea eta komentatzea; gustuko neska*-mutilarekin ligoteoa (sanoa!); txosnako txanda egitea; lau trago edan ondotik kalaka luzea, erausian aritzea, mundua moldatzeko grinez...

Horietatik zein eginen duzu herriko bestetan? Baietz erdia baino gehiago! Eta guzti-guztietan solasak, hitzak ezinbertzekoak izanen dira. Baina, zein hitz? Zein hizkuntzatan ariko gara? Parean tokatzen zaigunaren arabera aldatuko dugu hizkuntza, seguru aski, gure hautua eta nahia, maiz, bazter utzita. Edo taldean ohitura delako hasiko gara erdaretan, erosoagoa delakoan, iskanbilarik nahi ez dugulako, errazago zaigulako, behar bada zein hizkuntzatan ari garen kontzientziarik hartu ez dugulako... eta ohartu ordurako, euskara bazterrean gure herriko bestetan ere. Gure solasean bezala, gostako zaigu ostatu, autotxoke eta tiobiboetan euskarazko musikarik aditzea. Ematen du euskara eta ongi pasatzea ezin ditugula lotu, arraioa!

Akaso, besta egun hauek probesten ahal ditugu gure hizkuntza ohiturei erreparatzeko. Norekin eta nola solastatzen garen aztertzeke, gure hizkuntza-hautua sendotzeko, eta munduari adierazteko euskaraz bizi garela, eta euskaraz bizi nahi dugula. Eta badakigula euskaraz ongi pasatzen. Jarrera kontu bat baita, finean.

Eta erranen duzu ingurune euskalduneari bizi garela, hemen dena egina dagoela... Egia da, ingurune aski euskalduna da Bortzirietakoa. Herri guztiak daude Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA), administrazio eta hezkuntza arloko

jarduna euskaraz nagusitzen da; herriko eragile gehienek ere hau dute hizkuntza nagusia, baina... Baina franko dugu oraindik. Zailtasunak eta mugak nonahi ditugu: lanean, osasun etxean, udalaz gairako administrazioan, komunikabideetan eta pantailatan, erosketak egiterakoan... eta baita besta giroan ere.

Horregatik eta horretarako sortu genuen Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimendua. Euskaraz bizitzeko aukera osoagoa izateko. Eragiteko. Astintzeko. Mugitzeko eta mugiarazteko. Euskara talde bat gara, soziala, irekia, zabala eta herritar euskaltzalez osatua. Adinguztietako jendea biltzen gara taldean, Bortzirietako bortz herrietakoak, eta sare gisa lan egiten dugu. Euskararen erabilera eragin nahi dugu, eta herritarren kontzientzia piztu, udaleri euskaldunen eta arnasaguneei izaerari kontzeko. Aldaketak eragiteko sortu gara, gizartearen eraldaketa jomugan duten prozesu eta mugimenduekin elkarlanean aritzeko, eta, hala, justua, iraunkorra eta berdinzalea izanen den gizarte euskalduna eraikitzen laguntzeko.

Bortz herrietako biztanleen arteko harremanak bulkatu nahi ditugu, eta udazkenerako proposamen bat egin dugu bide horretan: Bortzirietako euskaltzaleok besta batean elkartzea, urriaren 12an, gure izaera eta nortasuna indartzeko, euskaraz ongi pasatzeko gune bat eraikitzeko, batera egoteko toki bat izateko, herrien arteko harremana sustatzeko... Bazatuz euskararen herrira? Zatoz bestara!



arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arturo

Ongi pasa bestak!

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

OSTARGI OPTIKA

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa 8 BERA
948 630 753

Etxalarko bestetan ere gozatu

euskaraz

¡Disfruta del euskera también en fiestas de Etxalar!

%100ean diruz lagundutako ikastaroak
Cursos subvencionados al 100%

+ INFO: 948 634 125 | euskara@bortziriak.eus | www.bortziriak.eus



Besta ederrak pasa !

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA



Kalefakziorako Gasoila
etxez etxe banatzen da

IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Telf.: 948 63 74 60
31770 Lesaka (Navarra)



Etxalarko jubiloteka, 2022. urteko martxoaren hondarretik martxan dagoen adineko pertsonentzako aisialdi zerbitzua da.

Jubiloteka, adineko pertsonak euren ingurunean aktibo eta osasuntsu mantentzeko espazioa da, eta bertan, harremanak sustatzeaz gainera, ekintza anitzak burutzen dira, hala nola; ariketa fisikoa, erreflexuak, erritmoa eta koordinazioa, motrizitatea, memoria-ariketak, kalkulua, arreta eta pertzepzioa, musikoterapia, sukaldaritza tailerrak, gai zehatzei buruzko hausnarketak, profesionalen eskaintako hitzaldiak, eskulanak eta denbora-pasak.

Astean behin biltzen gara, asteartetan, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Aurten, gainera, gizarte zerbitzuen eskutik, garraio-zerbitzua paratu da martxan. Furgonetaren zeregina, jubilotekako partaideak etxetik jubilotekara, eta jubilotekatik etxera eramatea da.

Norbaitek jubilotekari buruzko informazio gehiago beharko balu, Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatera (948 635 036) deitu edo jubiloteka@bortziriakgz.eus-era idatz dezake.

**Jubilotekako partaideon partetik,
Besta Zoriontsuak pasat!**

BOSCH
Service



Bosch Car Service

Inyección de Gasolina
Inyección Diesel
Electricidad/Electrónica
Encendido
Frenos, ABS, ESP
Mecánica de mantenimiento
Mecánica de motor
Sistemas de Refrigeración

TALLERES BIDASOA

Bidasoa, 61 · 31780 BERA (Navarra)

Tel.: 948 63 01 90

Tel./Fax: 948 63 02 99

talleresbidasoa@bosch-bcs.com

talleresbidasoabera@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

Itsasoa hurbilago!



**ONGI PASA
BESTAK!**

948 630 981 · 620 828 757
Itzea, 6 · BERA

arteka
arkitektura arquitectura



JUAN MARI ALEMAN – PATXI VALER

- Etxebizitza berriak
- Zaharberritzeak
- Nabeak / Lehorrak
- Lokalen berrikuntzak



Tel. 948580610
info@artekabaztan.com
www.artekabaztan.com

Balda Medikuren Plaza, 1-1.A · ELIZONDO



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



*Ongi pasa
bestak!*

ETXEKO INSTALAZIOAK
INSTALAZIO INDUSTRIALA
EGUZKI PLAKAK AUTOKONTSUMORAKO
INSTALAZIO INTELIGENTEAK
(DOMOTIKA KNX SISTEMA)

ENERGIA KOMERZIALIZATZAILEAK



Zalain Ind. 42 | BERA

948 63 14 52 - 639 60 80 34 - 639 56 59 65

BigMat

Mendixuri

*Ongi pasatu
bestak!*

ERAIKUNTZA MATERIALAK - GARRAIO ZERBITZUAK
MAKINEN ALOKAIURUAK - ZERAMIKA
KOMUNAK - MARGOAK - LOREZAINZA
MAKINAK - LANERAKO ARROPA

Doneztebe
T: 948 450 305
mendixuri@bigmat.es



URKILĀ

HARATEGIA

Kanttonberri 4, 31780 Bera / Tel.: 948 63 04 39

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa



016 Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazio eta aholkularitza juridikoa
información y asesoramiento jurídico en materia de violencia contra las mujeres.

BORTZIRIETAN


ERASO SEXISTARIK EZ


¡NO A LAS AGRESIONES SEXISTAS!





ERASO BAT GERTATU BADA, BESTEOK:

SI SE HA PRODUCIDO UNA AGRESIÓN SEXUAL:

 **Laguntza eskaini**
Ofrécele ayuda

 **Entzun eta ez utzi bakarrik**
Escúchala y no la dejes sola

 **Laguntza emozionala eman**
Proporcionale ayuda emocional

 **Laguntza behar badu deitu 112**
Si necesita ayuda llama al 112

GARRANTZITSUA!


BORTXAKETA GERTATU BADA:
IMPORTANTE. SI ES UNA VIOLACIÓN:


Ez aldatu arropaz, ez garbitu, eta ahozko bortxaketa izan bada ez jan eta ez edan.
No cambiarse de ropa ni limpiarse, y si ha sido una violación bucal no comer ni beber




ERASO BAT JASAN BADUZU:

SI HAS SIDO AGREDIDA:

 **Laguntza eskatu**
Pide ayuda

 **Deitu 112**
Llama al 112

112

 **Berehalako laguntza**
Ayuda urgente

 **Informazioa**
Información

 **Salaketa**
Denuncia

 **Emakumeei laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua**
Servicio de Atención Jurídica a la Mujer

* Foruzaingoek, ospitaleek edo osasun etxeek esku hartzen badute (112 bidez), hauek ofizioz salaketa bat jartzen dute.

Cuando interviene la Policía Foral, Hospital o Centro de Salud (a través del 112), se interponen denuncias de oficio.